

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gu Oiartzo Batxilergo Ikastetxeko bost ikasle gara. Sortu dugun enpresak Seeenist izena du. Proiektu hau aurrera eraman ahal izateko, aztertzen aritu gara Espainian zer behar falta diren, horiek asetzeko eta enpresa edo produktua sortzeko. Orduan, jarrera ekintzailearen ikuspegitik begiratuta, asmatutako zerbaiten hobekuntza egitea erabaki dugu.

Gaur egun, gizarteak dituen beharrak errazteko, gure egunerokoan erabiltzen ditugun produktuen hobekuntzari erreparatu diogu, produktu horien erabilera modu praktikoa eta azkarragoan egin ahal izateko.

Ahal ditugun kontsumitzaile gehienak erakartzeko, publiko zabal bati bideratu dugu proiektua eta ondorioz, mota guztietako pertsonak behar dituzten produktu horiek eskaintzea erabaki dugu, batez ere beren egunerokotasunean erraztasuna eta erosotasuna bermatzeko. Bestetik, aipatzekoa da adin guztietako pertsonak (haurrek, nerabeek, helduek...) erabil ditzazketela eta denek eskuragarri dituztela.

Hori dela eta, talde honetako kide bakoitzak abilezia desberdinak ditu, eta horiek oso erabilgarriak izan daitezke mundu berritzaile honetan. Bakoitzak taldearen bertsio hobea eman baitezake proiektu hau gauzatu ahal izateko.

Hasteko, Eneritzek negoziazioaren arloan gaitasun handia du pertsonak konbentzitzerako orduan, hitz egiterako garaian argudio sendoak erabiltzen baititu bere ikuspuntua defendatzeko. Berari entzutean, pertsonak bat egiten dute bere iritziarekin.

Noraren ekarpen nagusia, aldiz, egoerari egokitzeko duen gaitasuna da. Ezaugarri hau onuragarria izan daiteke, izan ere, estres egoera batean (ezustekoak gertatzen direnean, esaterako) lasai mantentzen da eta ondorioz, talde guztia lasaitzeko gaitasuna du.

Enararen trebetasun nabarmenena bere buruarengan duen konfiantza da. Ezaurri onuragarri honek, beste kideekiko segurtasuna eta babesaren bermatzen du. Talde lanean motibatze gaitasuna du, beraz, enpresa egoera gogorretan egon arren, bere indarrak besteen autoestima igo dezake.

Elaiaren gaitasun handiena malgutasuna eta aldeketetan moldatzea da, alegia, edozein momentuan aldaketak egin behar baldin badira enpresan, aldaketa horiek saiaturiko da egiten nahiz eta aldaketa horiek handia izan daitekeen. Berak entzuterakoan, ahaleginak egingo ditu aurrera joateko helburuarekin.

Saioaren trebetasun handiena talde-lidergoa da, hau oso onuragarria izan daiteke dena kontrolpean edukitzeko eta enpresa ondo antolatuta edukitzeko. Horretaz gain, berrikuntza eta sormena ere aipatzekoak dira, sortu behar dugun produktua garatu ahal izateko. Ideia berririk gabe, ezin izango genuen startinnovan parte hartu eta horregatik kasu honetan ezinbestekoa da.

Talde bezala, gure puntu handienetakoak honako hau da: talde lidergoa, alegia, talde bat lideratu eta aurrera eramateko gaitasuna daukagu. Gure beste indarguneak arriskuak hartzea da, baita malgutasuna eta aldaketetara egokitzea, hau da, momentu batean aldaketa bizkorrak egin behar baditugu, gai izanen gara aldaketa horiek egitea ahal dugun azkarren bezeroarentzako.

Lehenik, beharrak detektatzearekin hasi gara eta asmatutako zerbaiten hobekuntzak prestatu ditugu. Hortaz, gure beharra nagusia honakoa da: existitzen diren bi produktu bat egitea, praktikoagoa izateko, hainbeste gauza eduki gabe.

Brainstormingak hiru fase nagusi ditu. Lehenengo fasean, ideia guztiak ongi etorriak dira. Bururatutako ideia guztiak kontuan hartu genituen, zentzugabeenak baita ere, noski. Bertan, ideia nabarmen batzuk atera genituen.

Ideia horiek hurrengoak dira:

- Bi mugikor elkarren artean kargatzea, hau da, bateria mugikor batetik bestera pasatzea, kargadorea erabili gabe.
- Eguzki kargadorea (eguzkitan kargatzen den kargadorea, etxetik kanpo kargatu ahal izateko).
- Boligrafoko tinta bat eta bestetik tipex-a biltzen dituen boligrafo baten egitura, hau da, bolitipex bat.

- Hortzetako eskuila bat barrutik hortzetako pasta duena. Presionatuz, barruan aurkitzen den pasta aterako da zepilloko filamentuaren erdian (zepilloa + pasta = zepipasta)
- Belakia eta ontziak garbitzeko xaboia bat egin. Belakia estutzean, hortik, barruan dagoen xaboia aterako da.

Bigarrenengo fasean ideak mugatu genituen, ideia batzuk hautatuz eta beste batzuk deuseztatuz.

Batetik, hauek dira hautatutako hiru ideiak:

Lehenik, hortzetako eskuila bat barrutik hortzetako pasta duen produktua hautatu dugu, gure ideia posibleetako bat delako. Hortaz, eskuila presionatzen badugu, barruan aurkitzen den pasta gutxinaka-gutxinaka aterako da, zepilloko filamentuaren erditik. Ideia hau horrela laburtu daiteke: zepilloa + pasta = zepipasta. Guri ideia ona dela iruditzen zaigu, izan ere, pertsona guztiok behar dugun objektu bat da, eta berrikuntza horrekin, bidaiak praktikoagoak egin ditzazkegu (ez dugulako pasta eraman behar).

Bigarrenik, Eguzki kargadorea aukeratu dugu, ideia berritzaile bat dela iruditzen zaigulako. Produktu hau mugikorreko kargadore portatil bat da, baina askotan kargatzea ahazten zaigunez, pentsatu dugu ideia ona izango litzatekeela eguzki-energiarekin kargatzea, horrela edozein momentuan kargatu dezakegu bai mugikorra eta kargadorea ere. Alegia, teknologia behin eta berriro presente dago gure egunerokoa, eta garrantzitsua da ere gauzak erraztuko dizkizun produktu bat eskura izatea, honen kasua den bezalaxe.

Bukatzeko, boligrafoko tinta bat eta bestetik tipex-a biltzen dituen boligrafoa aukeratu dugu, hau oso praktikoa izan daiteke, batez ere ikasten ari diren pertsonentzat. Produktua lagungarria da, boligrafo baten barruan bi objektu unitate daudelako eta idazten ari garen momentuan, hor tipex-a daukazulako. Horrela, akatsak azkarrago zuzendu eta ezabatu ahal izango dira azterketa edo lan garrantzitsu batean, izan ere, denbora justua dugu.

Bestalde, deuseztatutako bi produktuak bi mugikor elkarren artean kargatzea eta belakia eta xaboia bat egiten duen produktuak dira.

Bigarren ideia ez zaigu oso egingarria iruditzen; teknologiari buruz asko jakin behar delako. Oro har, pertsona bat behar da gai horretan espezializatua dena, buruan daukagun ideia hori birsortu ahal izateko. Gainera, gure kasuan ez dugu horrelako produktuei buruz asko dakien inor, eta horregatik erabaki dugu ez aukeratzea.

Bigarrena, berriz, jada antzeko zerbait asmatuta dago, eta iruditzen zaigu arrazoi horregatik ez litzatekeela hain arrakastatsua izango. Belakia eta ontziak garbitzeko xaboia bat egin duen produktuaren kasuan, hobeto esanda, oso arrunta da bai Euskal Herriko eremuetan eta baita ere kanpoko herrialdeetan. Ondorioz, ez du zentzu handirik sortua dagoen ideia bat berriro garatzea, aldaketa berririk gabe.

Azkeneko fasean, ateratako ideia guztietatik bat aukeratu dugu.

Talde bezala aukeratutako bukaerako produktu eta ideia hortzetako eskuila izan da. Lehen aipatutako beste guztiak baztertu ditugu interes gutxienekoak izan direlako. Horretaz gain, kargadore portatila, nahiz eta beste batzuk erreferentzia moduan eduki, nahiko zaila da gauzatzeko eta baita ere zaila da produktu hau pertsona guztietara iristea, izan ere, helduek eta haurrek erabiltzen ez duten produktu bat da. Ondorioz, esan genezake ideia hau asko mugatzen da.

Bigarren produktuari dagokionez, aipatu beharra dago boligrafo hori gauzatzeko modu bakarra likidozko tipexa erabiltzea dela, eta honek askotan arazo ugari ekartzen ditu, berehala lehortzen ez delako.

Aukeratu dugun ideia produktu bihurtu ondoren, enpresa formulatzea falta zaigu. Horretarako, ideia hau enpresa bideratu behar dugu, zehazki proiektu batera egokituta.

Geure enpresa bi produktu bat egitea denez, banatuko dugu alde batetik, nolakoa izango den eskuila. Horretarako eskuilaren zabalera, altuera etab... eztabaidatuko ditugu guztientzat izan dadin. Bestetik, hortzetako pasta sortuko dugu. Gure hortzetako pasta edonor erabil dezake txuritzeko, txantxarrik ez sortzeko, hortz labaintzako eta abar. Kontuan edukita bezeroarentzako produktuaz gain, erosotasuna eta perfekzioa bilatuko dugu uneoro...